



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA
BATXILERGOKO, LANBIDE HEZIKETAKO ETA HIZKUNTZEN
IRAKASKUNTZAKO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZAREN
UNIBERTSITATE MASTERRA**

JARRAIPEN AUTOTXOSTENA

Zentroko Batzordearen
onarpen data: 2022/03/22

www.ehu.eus



INDIZEA

1. Titulazioaren informazio orokorra
2. Aldaketak, gomendioak eta hobekuntzak
3. Jarraipenerako adierazleak
4. Hobekuntza-ekintzen titulazio plana
5. Balorazioak

1. TITULUAREN INFORMAZIO OROKORRA

MEC kodea: 4311844GOI

Atxikitze eta emate ikastegia:

Goimailako Online Institutua / Goimailako Online Institutua

Tituluaren webgune instituzionala:

eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/master/irakasleen-prestakuntza-online-masterra>

es: <https://www.ehu.eus/es/web/master/master-online-formacion-profesorado>

Ikasleei eskainitako webguneko informazio publikoari buruzko gogoeta laburra:

Masterrari buruzko informazioa bi webguneren bitartez eskaintzen dugu: UPV/EHUko webgunea eta GOI ikastegiaren webgunea. Modalitate erdi-presentzialean eskaintzen diren 3 espezialitateei buruzko informazioa bietan topatuko du interesa daukanak.

Dena den, GOI ikastegiaren webgunean badira UPV/EHUko informazioa osatzen eta zabaltzen duten zenbait atal:

- Izena-emateko formularioa eta matrikulazioa burutzeko pausoak.
- Ikasturteko egutegia eta aurrez aurreko saioak.
- Praktikak: egutegia eta hurrengo ikasturterako plazen eskaintza.

Izen-ematea GOI ikastegiaren webgunetik soilik egin daiteke eta, tarteka, ikasle batzuk nahastu izan dira nahiz eta bi webguneetan argi jarri.

Masterrari buruzko informazioa bi webguneetan eguneratuta dagoela zaintzen dugu nahasterik izan ez dadin.

2. ALDAKETAK, GOMENDIOAK ETA HOBEKUNTZAK

2.1 EGIAZTATUTAKO TITULUAN EGINIKO ALDAKETAK

Tituluaren aldaketa	Justifikazioa / Emaitzak
Filosofia Ikasgelan 2021-22 ikasturtean, Irakaskuntza Masterreko Giza eta Gizarte Zientziak espezialitatean irakasgai berri bat, Filosofia Ikasgelan, modalitate erdi-presentzialean eskaini ahal izateko ekintza. Ikasgaia gaur egun aurrez aurreko modalitatean ematen da eta modalitate erdi-presentzialean ere eskaintzeko arrazoi nagusia azken horren hautazkotasuna hobetzea izan da. Horixe izan zen, hain zuzen ere, Unibasq agentziak egindako ebaluazio-txostenean nabarmendu zen puntuetako bat: modalitate erdi-presentzialeko hautazkoen eskaintza txikia eta eskaintza etorkizunera begira zabaltzeko beharra. GOI ikastegiko Zuzendaritza Taldeak, 2021eko martxoaren 10ean egindako bileran hartu zuen irakasgai berria eskaintzeko erabakia eta, idatzi baten bitartez, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari helarazi zion erabakiaren berri. Horrekin batera, ikasketa planaren egitura aldatzeko proposamena aurkeztu zuen Unibasq agentziara bidali ahal izateko. Atxikita GOI Zuzendaritza Taldeak hartutako erabakia jasotzen duen akta. Atxikita Unibasq agentziara bidalitako eskaera.	Unibasq agentziak 2021eko martxoak 31an eskaera jaso eta, aztertu ostean, aldeko ebaluazio-txostena egin zuen. Atxikita jasotako ebazpena. Ondorioz, 2021-22 ikasturtean Filosofia Ikasgelan eskaini ahal izateko prestakuntza-lanetan hasi da GOI ikastegia. Elkartutako dokumentazioa: - GOI Batzorde Akademikoa erabakia - Unibasq ebazpena - Unibasq eskaera martxoak 21

Tituluaren aldaketa	Justifikazioa / Emaizak
Arduradun-postua: Idazkari akademikoa Jatorria: Agentzien kanpo txostenak	

2.2 KANPOKO AGENTZIEK TITULUEI EGINIKO GOMENDIOAK

Tituluaren gomendioa	Erantzuna
----------------------	-----------

2.3 EGINDAKO HOBEKUNTZA EKINTZAK

Tituluaren hobekuntza	Hartutako neurriak (analisiak, emaitzak eta ebidentziak/adierazleak)
GOI ikastegiaren webgunea Masterrari dagokion informazioa publikoki eskaintzeko, UPV/EHUko webguneaz gaiz, GOI ikastegiak bere webgune propioa argitaratu zuen: http://www.ueu.eus/ikasi/masterra Interesa daukatenek bertan topatu dezakete ondoko informazioa: * Sartzeko betebeharrak eta sartzeko irizpideak. * Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza Saileko ikasgai eta titulazioen taula, irakasgai bakoitzerako onartzen diren titulazioen zerrenda zehazten duena * Masterrari buruzko informazio orokorra eta espezialitateei buruzkoa. * Ikasketa-plana eta irakasgaien gidak, irakasgai bakoitzari buruzko informazio zehatz eta eguneratuarekin: eskola orduak, erabiltzen den metodologia eta ebaluazio sistema. * Ikasturteko egutegia eta aurrez aurreko saioak. * Praktika: praktikaldiari buruzko informazio orokorra, egutegia eta hurrengo ikasturterako plazen eskaintza. * Irakasleak: masterrean parte hartzen duten irakasleak eta beraien cv laburra. * Akreditazioa: Tituluaren akreditazioa eta Unibasq-en ebaluazio-txostenak. Arduradun-postua: Zuzendaritza Jatorria: Beste batzuk	2020ko azaroan, UPV/EHUko errektoretzatik GOI ikastegiaren domeinua aldatzeko eskaera jaso genuen. Horretarako arrazoiak ondokoa izanik: Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta GOI ikastegiaren arteko hitzarmenaren arabera, UPV/EHUren ikastegi atxiki bihurtu dena GOI ikastegia da. Ondorioz, Unibertsitateko web gune instituzionalean GOI ikastegiari buruz jartzen dugun informazioak ikastegi horren ingurukoa izan behar du. Eskatutakoa betetzeko webgunea domeinu berrian kokatu genuen: https://www.goi-institutua.eus/ Bide batez, 2021-22 ikasturteko izen-emateari begira, funtzionalitate berria erantsi genion webguneari: ikasle eta irakasleei buruzko informazioa datu-base bidez kudeatu ahal izatera. Modu honetan, masterreko izen-ematea GOIren webgunetik bertatik kudeatu ahal izango da, kanpoko tresnarik erabili beharrik gabe, eta izen-emateen jarraipena eta ponderazioa erraztuz. Masterrean izena-emateko epea hurbildu ahala, interesatuen deiak eta emailak ugaritzen dira. Zalantza asko gai bertsuen inguruan izaten direnez, webgunean FAQ edo MEG gunea abian jartzea erabakitzen du Batzorde Akademikoak 2020ko martxoan. Gune horrek ohiko galderak jasoko ditu ataletan ordenatuta.
Teknopedagogia mintegia 2020-21 ikasturtean abian jarri da Teknopedagogia mintegia. Online modalitatean oinarritutako masterra izanik beharrezkoa iruditu zitzaigun IKTak eta hezkuntza lantzeko gune bat sortzea. Mintegi honen zeregin nagusiak izan dira: * Ikasle eta irakasleei baliabideak eskaintzea gaur egun teknologiak hezkuntzan betetzen duen egitekoaz ikuspegi	Lehen ikasturteko balorazioa oso ona izan da, ikasle zein irakasleen parte hartze altuarekin.

Tituluaren hobekuntza	Hartutako neurriak (analisiak, emaitzak eta ebidentziak/adierazleak)
kritiko bat garatzeko. * Konpetentzia digitalen lanketa, online ikasle gisa ikasketak burutzeko beharrezko dituztenak batetik eta, bestetik, etorkizun hurbilean irakasle gisa beharko dituztenak. Mintegia ikasle zein irakasleei zuzendua dago eta, lehen ikasturte honetan, zeharri erro planteatu da, langai izango dituzten gainerako ildoekin lotuz. Helburu horretara begira, 2020-21 ikasturtean 2 saio antolatu dira ikasle eta irakasleentzat: 1.- 2020-12-19: Konpetentzia digitala: begirada pedagogikoa lantzen. Webinarra. 3 orduko saioa Rakel Gamito eta Amaia Arroyorekin. 2.- 2021-02-13: Software librea hezkuntzan: egoera eta erronkak. Mahai ingurua, 3 orduko saioa. Juan Ezeiza, Sagra Crespo, Jokin Lacalle eta Egoitz Gonzalez. Arduradun-postua: Idazkari akademikoa Jatorria: Plan estrategikoa	
Espezialitate bakoitzeko ikasle-kopurua eguneratzea GOI Zuzendaritza Taldeak, 2021eko martxoaren 19ko bileran, honako erabakia hartu zuen: Espezialitate bakoitzeko 44 ikasle onartzea, guztira, 132 ikasle onartuz. Erabakia hartzeko orduan, kontuan izan ziren: * 2020-2021 ikasturterako onartutako ikasle kopurua 40 ikasle/espezialitateak izan da (120 ikasle guztira). * 2020-2021 ikasturtean izena emandako ikasle kopurua oso handia izan da. * UPV/EHUko arautegiak ikasle kopurua %10 bat igotzeko aukera eskaintzen du. * Derrigorrezko ikasgaietan 40 ikasletik 44 ikasle izateko online ikasgaietan aldaketa pedagogikorik ez duela ekartzen adosten da. * Hautazkoetan ikasle kopurua orokorrean gutxitu egiten da (masterra ikasturte batean baino gehiagotan egiten delako, zein ikasle kopurua banatu egiten delako). Arduradun-postua: Zuzendaritza Jatorria: Beste batzuk	Espezialitate bakoitzeko 44 ikasle berri hartzea onartu da, guztira, 132 ikasle. Elkartutako dokumentazioa: - Zuzendaritza Taldea akta ikasle-kopurua 2021-03-18
HEFA-GOI koordinazioa Irakaskuntza Masterreko arduradunek, bi modalitateen (aurrez-aurrekoa eta erdi-presentziala) arteko koordinazio egokirako mekanismoak ezartzea adostu dute aurten. Arduradun-postua: Zuzendaritza Jatorria: Beste batzuk	Bi modalitateen arteko bilerak finkatzea erabaki da, ondoko ezaugarriekin: Osaera: * Masterraren bi modalitateetako arduradunak. * EHUko administrazio atalburua Maiztasuna: * 2 bilera urtean, bata udaberrian eta bestea udazkenean. 2020-05-06an bi modalitateen arteko lehen bilera egin zen. Atxikita bilera hartako akta. Elkartutako dokumentazioa: - HEFA-GOI akta 2021-05-12
COVID-19ari aurre egiteko neurriak Pandemia egoera tarteko, programatutako aurrez aurreko saio gehienak online burutu behar izan ditugu, ikasturte hasierako ekitaldia eta Master Amaierako Lanen defentsa izan ezik. Irakasle-ikasle arteko elkarrekintza eta komunikazioa	Ikasturtea hasi aurretik programatutako 9 saio presentzialak honela moldatu ditugu COVID-19ak eraginda: * 1. saioa (nahitaezkoa): Masterraren aurkezpen-saioa. Aurrez aurre. 2020ko irailaren 19an, 09:00-14:30.

Tituluaren hobekuntza	Hartutako neurriak (analisiak, emaitzak eta ebidentziak/adierazleak)
bermatzeko, bi bideokonferentzia sistema integratu eta saio sinkronoak burutu dira ikasleen lanak aurkezteko, practicumari buruzko mintegiak egiteko eta baita tutoretza saioetarako ere. Hortik aurrera, practicuma ohiko moduan egin ahal izan da ikastetxeetan, bertako protokoloak errespetatuz eta jarraituz, aparteko intzidentziarik gabe. Ikasturte hasierako ekitaldirako eta MAl defentsarako, nean uneko COVID-19 prebentzio neurriak betearazi dira. Arduradun-postua: Idazkari akademikoa Jatorria: Beste batzuk	* 2. saioa (nahitaezkoa): DILAN aurkezpenak. Online sinkronoa. 2020ko azaroaren 28an, 09:00-14:30. * 3. saioa: Teknopedagogia saioa. Online sinkronoa. 2020ko abenduaren 19an, 09:00-14:30. * 4. saioa: Teknopedagogia saioa. Online sinkronoa. 2021eko otsailaren 13an, 09:00-14:30. * 5. saioa (nahitaezkoa): Practicum I. Mintegia. Online Ikasgela Birtualean. 2021eko martxoak 12-14 artean. * 6. saioa (nahitaezkoa): Practicum II. Mintegia. Online sinkronoa. 2021eko apirilaren 24an, 09:00-14:30. * 7. saioa (nahitaezkoa): MAL defentsak. Aurrez aurre. 2021eko uztailaren 1, 2 eta 3an, 9:00-18:00. Elkartutako dokumentazioa: - GOI ikastegiaren COVID-19 prebentzio neurriak
Online irakaskuntzan formakuntza-plana GOI ikastegiak modalitate erdi-presentzialeko irakasleentzako prestakuntza-egitasmo sendoa antolatu zuen 2020ko udaberrian, lau helburu nagusirekin: 1. Masterraren antolaketa orokorraren berri eman eta irakasleen klaustroa ezartzea. 2. UEUk azken urteotan garatu duen Online ikaskuntzarako eredu pedagogikoa masterreko irakasleei ezagutaraztea. 3. Masterreko irakasleei online aritu ahal izateko tresnak eta aribideak eskaintzea. 4. Irakasleei masterrean zehar erabili behar dituzten ikas-materialak diseinatzeko laguntzea. Ikastaroak 72 orduko iraupena izan zuen eta Abel Camacho, Pedro Lombide, Juan Ezeiza eta Ireide Arriolabengoa izan ziren gidari. Edukia: * Online ikastaroen diseinua (20 ordu) * Material sorkuntza didaktikoa (40 ordu) * Moodle (7 ordu) * Mahara (5 ordu) Arduradun-postua: Zuzendaritza Jatorria: Beste batzuk	Irakasleak, oro har, gustura aritu dira online irakasle gisa. Gehienentzako lehenbiziko aldia izan da modalitate honetan eta aurretik jasotako formakuntza asko eskertu dute. Lehenbiziko urtean, irakasgaia prest izateko ahalegina handia izan dela aitortu dute. 2021-22 ikasturtera begira, formakuntza-plana garatuko dugu ondoko 2 norabidetan: 1. IRAKASLE BERRIENTZAKO FORMAZIO IKASTAROA Helburuak: * Irakaskuntza Masterraren egitura eta funtzionamendua barneratzea. * UEUren online ikaskuntzaren eredua eta masterreko egitura didaktikoa barneratzea. Formatua: * Aurrez aurreko saio bat (4 ordu), Irakaskuntza Masterraren egitura, UEUren online metodologia, online komunikazioa eta masterraren egitura didaktikoa azalduz. * Euskarri bezala, iazko online formazio ikastaroko edukiak. * Parte-hartzaileak: 2021/22 ikasturteko irakasle berriak. 2. FORMAZIOA IRAKASLE TALDE OSOARENTZAT Helburuak: * UEUren online ikaskuntzaren ereduan eta masterreko egitura didaktikoan sakontzea. * Masterreko ebaluazio eta kalifikazio eredua barneratzea. * Moodleren erabileran sakontzea. Formatua: * Aurrez aurreko saioa bat (3-4 ordu) Kudeaketa-txostena 2020-21 * Moodlearen erabileran sakontzeko online ikastaro bat (20-30 ordu). Edukiak: Galdera sortak, tailerra, wikiak eta H5P. * Parte-hartzaileak: 2021/22 ikasturteko irakasle-taldea. Elkartutako dokumentazioa: - Irakasleentzako formakuntza-plana 2021-22
UPV/EHU - GOI arteko koordinazioa UPV/EHUren eta GOI ikastegiaren arteko hitzarmenean jasota dagoen bezala, UPV/EHUko errektoreak atxikitako zentroan duen ordezkaria aukeratu du. Lore Erriondo Korostola irakaslea izan da UPV/EHUko ikertzaile-irakasle talde iraunkorretik hautatutakoa. Arduradun-postua: Zuzendaritza	GOI ikastegiaren ardura izan da ikasturteko gorabehera nagusienak ordezkariari jakinaraztea eta baita jarraipen-bilerak deitzea ere. Aurten jarraipen-bilera bakarra izan da baina hurrengo ikasturtean, titulazioaren jarraipen egokirako, 3 bilera egitea zehaztu da.



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzaren Unibertsitate Masterra Máster Universitario en Formación del Profesorado de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanzas de Idiomas
Goimailako Online Institutua Goimailako Online Institutua

Tituluaren hobekuntza	Hartutako neurriak (analisiak, emaitzak eta ebidentziak/adierazleak)
Jatorria: Beste batzuk	



3. ADIERAZLEAK JARRAIPENERAKO

1. PLAZA ESKAINTZA ETA ESKAERA	2020/2021	2019/2020	2018/2019	2017/2018
Plaza eskaintza Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 30.0	120			
Ikasle berrien matrikula izen ematearen arabera Lim. sup: Lim. inf:	121			
Sarbidea ikasketetara ESPAINIAKO UNIBERTSITATE TITULUA Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	121			
Sarbidea ikasketetara EGHE UNIBERTSITATE TITULUA Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	0			
Sarbidea ikasketetara EGHEtik KANPOKO UNIBERTSITATE TITULUA Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	0			
Ikasle berrien matrikula lehenengo aukeran Lim. sup: 132.0 Lim. inf: 30.0	69			
Denbora osoko matrikula duen ikasle berri kop. Lim. sup: 132.0 Lim. inf: 30.0	107			
Denbora partzialeko matrikula duen ikasle berri kop. Lim. sup: 132.0 Lim. inf: 0.0	14			
Ikasle berrien matrikula lehen mailan: ingelesa Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 10.0	11			
Ikasle berrien matrikula lehen mailan: euskara Lim. sup: 132.0 Lim. inf: 30.0	121			
Atzerriko ikasle berrien matrikula Lim. sup: 10.0 Lim. inf: 0.0	0			
Tituluaren okupazioa Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	100.83			
Tituluaren lehenespina Lim. sup: Lim. inf:	0.58			
Tituluaren egokitzapena Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	57.02			
Ikasle bekadun kop.: emakumeak Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	9			
EJ eta MEC deialdietako ikasle bekadun kop.: emakumeak Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	9			
UPV/EHU deialdietako ikasle bekadun kop.: emakumeak * Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	0			
Ikasle bekadun kop.: gizonak Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	0			
EJ eta MEC deialdietako ikasle bekadun kop.: gizonak Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	0			
UPV/EHU deialdietako ikasle bekadun kop.: gizonak * Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	0			

2. IKASKETA	2020/2021	2019/2020	2018/2019	2017/2018
Errendimendu tasa Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	96.76			

* Azken ikasturtean adierazlerik erakusten ez bada, txostena egiteko aldian SIIUk datuak baliozkotzeko prozesua amaitu ez duelako da.

** Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.



Arrakasta tasa Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	99.03			
Ebaluazio tasa Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	97.71			
Egresatuak Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	97			
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	94.49			
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Lim. sup: 10.0 Lim. inf: 0.0	4.00			
Sarrera ikasturtearen datuak	2018/2019	2017/2018	2016/2017	2015/2016
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA) Lim. sup: Lim. inf:				
Sarrera ikasturtearen datuak	2019/2020	2018/2019	2017/2018	2016/2017
Graduazio tasa Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0				

3. MUGIKORTASUNA *	2020/2021	2019/2020	2018/2019	2017/2018
Bidalitako ikasleak guztira Lim. sup: Lim. inf:	0			
Bidalitako ikasleak: ERASMUS Lim. sup: Lim. inf:	0			
Bidalitako ikasleak: BESTE PROGRAMA BATZUK Lim. sup: Lim. inf:	0			
Etorritako ikasleak guztira Lim. sup: Lim. inf:	0			
Etorritako ikasleak: ERASMUS Lim. sup: Lim. inf:	0			
Etorritako ikasleak: BESTE PROGRAMA BATZUK Lim. sup: Lim. inf:	0			

4. MASTERRA IRAKASTEN DUTEN IRAKASLEAK	2020/2021	2019/2020	2018/2019	2017/2018
4.1 Profesorado de la UPV/EHU				
Seiurteko kop. Lim. sup: Lim. inf:	2			
Bosturteko kop. Lim. sup: Lim. inf:	1			
DOCENTIAZ bidez ebaluatutako IRI kop. Lim. sup: 50.0 Lim. inf: 0.0				

* Azken ikasturtean adierazlerik erakusten ez bada, txostena egiteko aldian SIIUk datuak baliozkotzeko prozesua amaitu ez duelako da.

** Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.



Ikasle DOB / IRI DOB ratioa (adierazlea zentroari dagokio, ez titulazioari) Lim. sup: 80.0 Lim. inf: 0.0	12.93			
Irakasleen egonkortasuna (IRI iraunkorra) Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	100.00			
Irakasleak (kopurua) Lim. sup: 50.0 Lim. inf: 0.0	4			
Irakasleak: emakumeak Lim. sup: 50.0 Lim. inf: 0.0	2			
Irakasleak: gizonak Lim. sup: 50.0 Lim. inf: 0.0	2			
Irakasle doktoreak (kopurua) Lim. sup: 50.0 Lim. inf: 0.0	4			
Irakasle doktoreak: emakumeak Lim. sup: 50.0 Lim. inf: 0.0	2			
Irakasle doktoreak: gizonak Lim. sup: Lim. inf:	2			
4.2 Profesorado externo a la UPV/EHU				
Kanpoko irakasleen seiurteko kop. Lim. sup: Lim. inf:				
Kanpoko irakasleen bosturteko kop. Lim. sup: Lim. inf:				
Kanpoko irakasleak (kopurua) Lim. sup: 40.0 Lim. inf: 0.0	19			
Kanpoko irakasleak: emakumeak Lim. sup: 40.0 Lim. inf: 0.0	12			
Kanpoko irakasleak: gizonak Lim. sup: 30.0 Lim. inf: 0.0	7			
Kanpoko irakasle doktoreak (kopurua) Lim. sup: 30.0 Lim. inf: 0.0	14			
Kanpoko irakasle doktoreak: emakumeak Lim. sup: 40.0 Lim. inf: 0.0	9			
Kanpoko irakasle doktoreak: gizonak Lim. sup: 30.0 Lim. inf: 0.0	5			

	Sustapenaren urtea			
5. LANERATZEA (promozioen datuak) **	2017	2016	2015	2014
Egresatuen gogobetetzea Lim. sup: 10.0 Lim. inf: 0.0				
Enplegu tasa Lim. sup: Lim. inf:				
Enplegu tasa: emakumeak Lim. sup: Lim. inf:				
Enplegu tasa: gizonak Lim. sup: Lim. inf:				
Langabezia tasa Lim. sup: Lim. inf:				

* Azken ikasturtean adierazlerik erakusten ez bada, txostena egiteko aldian SIIUk datuak baliozkotzeko prozesua amaitu ez duelako da.

** Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Langabezia tasa: emakumeak Lim. sup: Lim. inf:				
Langabezia tasa: gizonak Lim. sup: Lim. inf:				
% enplegu bideratua Lim. sup: Lim. inf:				
% enplegu bideratua: emakumeak Lim. sup: Lim. inf:				
% enplegu bideratua: gizonak Lim. sup: Lim. inf:				

* Azken ikasturtean adierazlerik erakusten ez bada, txostena egiteko aldian SIIUk datuak baliozkotzeko prozesua amaitu ez duelako da.

** Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioiko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Adierazleetatik atera daitezkeen ondorioen azterketa laburra:

OHARRA: Jarraipen adierazle horiez gain, tituluaren beste adierazle batzuk ditu ikastegiak bere Kalitatearen Barne Bermerako Sistemak.

Indarguneak

- * Izen-emate kopuru altua, plaza-kopuruaren oso gainetik.
- * Irakasleen errendimendu eta arrakasta tasa altuak.
- * Modalitate erdi presentziala: online ikasketak eta tarteka aurrez aurreko saioak. Ordu-tegi malgua, norbere erritmora egokitzen dena eta ikasketak lanarekin edo familiarekin uztartzeko aukera eskaintzen duena.
- * Berrikuntza ikasgelan ibilbide praktikoa, ikaslearen praktikaldia luzatzen duena eta ikastetxeek martxan dauzkaten berrikuntza-egitasmoak bertatik bertara ezagutzeko aukera eskaintzen duena.
- * UEUren online eredu pedagogikoa, masterraren ezaugarrietara egokitua.
- * Egresatuen balorazio altua.

Hobekuntza-arloak

- * Lehenbiziko urtea, ikasgaien eta ikasturtearen antolaketa finkatu behar.
- * Irakasle-talde berria. Online metodologian esperientzia hartu behar.
- * Hautazkoen eskaintza mugatua.
- * Irakasle doktoreen kopurua handitzeko plangintza espezifiko beharrezkoa.

4. TITULUA HOBETZEKO EKINTZA PLANA

4.1 TITULUEI EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Tituluaren aldaketa	Justifikazioa / Emaitzak
---------------------	--------------------------

4.2 TITULUEI EGIN BEHARREKO GOMENDIOAK

Tituluaren gomendioa	Erantzuna
----------------------	-----------

4.3 TITULUEI EGIN BEHARREKO HOBETUNTZAK

Tituluaren hobekuntza	Hartutako neurriak (analisiak, emaitzak eta ebidentziak/adierazleak)
-----------------------	---

5. BALORAZIOAK

Lehenbiziko ikasturte honetan 120 plaza eskaini eta guztiak bete dira. Hizkuntza eta Literatura eta Giza eta Gizarte Zientziak espezialitateetan 40 ikasle izan dira eta Natur Zientziak eta Matematika espezialitatean berriz 41. Horren arrazoia, baremazioan 40. eta 41. postuetako hautagaiek sarbideko nota berbera zeukatela eta berdinketa ebatzi ezin zenez biak onartu ziren masterrean.espezialitate bakoitzean 40 ikaslerekin.

Ikasturteak 2 berezitasun nabarmen izan ditu: batetik GOI ikastegiak masterra modalitate erdi-presentzialean eskaini duen lehenbiziko urtea izan dela, horrek suposatzen duen guztiarekin eta, bestetik, COVID-19ak eragindako egoera. Lehenbizikoari dagokionez, ahalegin berezia egin dugu UEUren online eredua masterraren neurrira egokitu eta irakasle-taldea formatzeko. Aholkularitza Pedagogikoko taldeak irakasgaien prestakuntza eta exekuzioa bertatik bertara zaindu du, irakasleei eta ikasleei behar zuten aholkularitza eskainiz. Bestetik, pandemia egoera tarteko, programatutako aurrez aurreko saio gehienak online burutu behar izan ditugu, ikasturte hasierako ekitaldia eta Master Amaierako Lanen defentsa izan ezik. Irakasle-ikasle arteko elkarrekintza eta komunikazioa bermatzeko, bi bideokonferentzia sistema integratu eta saio sinkronoak burutu dira ikasleen lanak aurkezteko, practicumari buruzko mintegiak egiteko eta baita tutoretza saioetarako ere. Hortik aurrera, practicuma ohiko moduan egin ahal izan da ikastetxeetan, aparteko intzidentziarik gabe.

Ikasturtea hasi aurretik programatutako 7 saio presentzialak honela moldatu ditugu COVID-19ak eraginda:

- * 1. saioa (nahitaezkoa): Masterraren aurkezpen-saioa. Aurrez aurre. 2020ko irailaren 19an, 09:00-14:30.
- * 2. saioa (nahitaezkoa): DILAN aurkezpenak. Online sinkronoa. 2020ko azaroaren 28an, 09:00-14:30.
- * 3. saioa: Teknopedagogia saioa. Online sinkronoa. 2020ko abenduaren 19an, 09:00-14:30.
- * 4. saioa: Teknopedagogia saioa. Online sinkronoa. 2021eko otsailaren 13an, 09:00-14:30.
- * 5. saioa (nahitaezkoa): Practicum I. Mintegia. Online Ikasgela Birtualean. 2021eko martxoak 12-14 artean.
- * 6. saioa (nahitaezkoa): Practicum II. Mintegia. Online sinkronoa. 2021eko apirilaren 24an, 09:00-14:30.
- * 7. saioa (nahitaezkoa): MAL defentsak. Aurrez aurre. 2021eko uztailaren 1, 2 eta 3an, 9:00-18:00.

